


4. PROSAZKO NARRAZIOA. BOCCACCIO

XIV. mendeak aldaketa garaia esan nahi du Europako gizartean. Gertakari garrantzitsu batzuek (Ehun Urteko Gerra, Izurrite Beltza, Mendebaldeko Zisma) aldatu egiten dute Erdi Aroko pentsamolde erlijioso eta espirituala. Burgesia gorantz doan klasea da eta gauzak ikuspegi berriz ikusten hasten da. Mundu egonezin horretan, bi autore europar handik idazten dute: Giovanni Boccaccio-k (1313-1375) eta Geoffrey Chaucer-ek (1340-1400).

Boccacciok Erdi Arotik Aro Modernorako igarotzea adierazten du hizkuntza arruntean idatziriko nobela handi batean: *Decameron*.

Chaucerrek, Boccaccioren eraginpean, bere aldetik, *Canterbury-ko ipuinak* idazten du.

Giovanni Boccaccio (Italia: 1313-1375)



Giovanni Boccaccio italiarra bankari baten semea zen eta hezkuntza arduratsua jaso zuen. Oso idazle kezkatua izan zen eta hainbat genero jorratu zuen (gai klasikoko, artzaintza, sentimendu, zalduntza eta abarrei buruzko nobelak, bertsoz eta prosaz idatzitakoak). Humanista ere izan zen, Petrarkaren laguna eta Danteren obran lehenengo aditua.

Bere maisu lana *Decameron* (1349-51) da. Obra handi hori burgesiari begira idatzi zuen. Egin ere, liburuari harrera bikaina egin zioten italiar burgesek, kultura klasikoaren markotik aldentutako liburu atsegintzat hartu baitzuten. Humanistek errezeloz ikusi zuten obrak ageri zuen iturrien kutsadura, eta mespretxatu egin zuten.

Decameron ez da Boccaccioren obra bakarra, baina bai ezagunena, bikainena eta interesgarriena. Izugarriko garrantzia izan du literaturan, bai Italiakoan eta bai gainerako guztietan. Obraren izenburuak "hamar egunak" esan nahi du. Prosatik, ekintzaren esparruagatik eta tratatzen diren gaiengatik da ospetsua baina, batez ere, gaien gordinkeriagatik. Baina *Decameron* ez da lizunkeria jostagarri soila, elementu asko eta askotarikoak dituen arte lan oso bat baita. Egia da Erdi Aroko teknikaz eta fantasiaz josita dagoela, baina ez dira ahaztuta uztekoak Humanismoaren eremuko elementuak ere. Obra errealista da, baina ez errealista soilik. Balio idealak goraipatzen ditu, amodioaren eta bertutearen idealak, hau da, eskuzabaltasuna, altruismoa eta buru-azkartasuna. Esan liteke, zentzu batean, zaldunen mundua hartzen duela ispilu. Horregatik klase aristokratikoaren ideala bere egin eta hirietako giro burgesean txertatu zuen (merkataritza eta eskulangintza munduan, zehatzago esanda). Esan izan da irudimenaren eta gudari distiratsuen mundua bertan behera utzi zuela. Boccaccioren pertsonaiak ez dira, izan ere, gerrako zaldun, bizitzako zaldun baizik.

Decameron-ek Italian eta Italiatik kanpo ere imitatzailerik asko izan ditu, baina, beharbada, Chaucer-en eta Shakespeare-ren obra batzuetan antzematen dira gehien Boccaccioren eraginaren aztarnak.

Decameron-en hari nagusia hau da: 1348an, Florentzian, gizartea izurriak abaildurik zegoen eta egoera latz horrek espiritualismoaren haustura ekarri zuen. Testuinguru horretan, zazpi dontzeila eta hiru mutil burges Florentzian kanpo elkartzen dira, izurriari iheska. Denbora emateko, jolas gisa, elkarri ipuinak kontatzeari ekiten diote. Hamar egunetan ehun ipuin kontatzen dira, egun bakoitzean haietako bati egokitzen zaiola istorioen gaia hautatzea: gai libreko ipuinak, maitasun dohakabeko ipuinak, maitasun zoriontsukoak, asmamen handikoak,



emazteek senarrei egindako isekak, gizonen eta emakumezkoen isekak, gai lizunak eta ereduko istorioak. Gazte horiek barre egiten diote munduari, errealitate gordinari ihes egin nahi baitiote. Autoreak onura eta atsegina lortu nahi ditu gai arruntak idaztatera landuaz jantziz. *Decameron* prosazko maisulana da hizkuntza arruntean, Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren sintesia.

Geoffrey Chaucer (Londres, 1340-1400)



Kultura literario paregabeko poeta izan zen. Europa osotik bidaiatu zuen zeregin militar, komertzial eta diplomatikoetan.

Chaucer-en obra nagusia *The Tales of Canterbury* da (*Canterburyko Ipuinak*). Bertsoz onduriko ipuin bilduma da, Boccaccio-ren *Decameron*-en antzera. Balizkoaren eta errearen arteko antitesia azaltzen da lan honetan; XIV. mendeko Ingalaterrako gizartearen kronikatza ere har daiteke zenbaitetan. Poeta hogeita hamar bat erromesekin agertzen da Canterbury-n, Thomas Becket-en santutegirako bidean. Bidaiaren nekea nolabait arintzeko, bina ipuin kontrazten die erromesei; ipuinik hoberenak afari eder bat jasoko du sari gisa. Ipuin eta pasadizo hauek guztiak lotzerakoan ageri da bete-betean Chaucer-en artea. Ipuinak ez ezik, oso interesgarria de esparrua, hau da, taldeko kideen arteko harremanak eta eztabaidak. Gizakiak bere horretan azaldu nahiak lehen idazle errealista bihurtu zuen Chaucer.

Merezimendu handia du, baita, artean finkatu gabe zegoen ingelesa erabili izanak.



PROSAZKO NARRAZIOA. BOCCACCIO

1. *Decameron*:

- Idazlea eta bere garaia
- Liburuaren edukia eta egitura
- *Hiru eraztunak* ipuina: egitura, pertsonaiak eta mezua edo interpretazioa
- *HIRU ERAZTUNAK* ipuina: azaldu argumentua hamar-hogei lerrotan

2. *Canterbury*-ko ipuinak:

- Obraren garrantzia
- Edukia, egitura...
- Idazlea eta bere garaia

HIRU ERAZTUNAK

(*Decameron*, **Giovanni Boccaccio**, XIV. mendea)

Aspaldian Saladino izeneko gizon bat bizi izan zen, ausarta eta bipila, Babiloniako sultana izateaz gain errege sarrazenoak eta kristauak hainbat aldiz goiaritu zituen. Bere ondasun guztiak gerrateetan eta eskuzabaltasunezko ekintzetan eralgia zituelarik, behin batean dirutza handi samarra behar izan zuen eta egoera honek estuasun larrian zeukan. Eta kopuru hori behar zuen azkartasunez lortzerik ez zuenez gero, gomutara etorri zitzaion Melkisedek zeritzon judu dirutsu bat, Alexandrian lukurrerua zena eta pentsatu zuen agian berorrek egingo ziola zerbitzu hori.

Judua, ostera, hain zen zekena ezen bere borondatez ez zion sekula zerbitzu hori egingo. Bestalde, sultanak ez zuen behartu nahi; baina beharizan hartaraturik, lukurreruaren mesedea zelana edo halan jadetsi behar zuela erabakita, berarengana jo zuen azkenik, zentzunezko itxura zukeen kontsulta bat egitera. Eta, horrela, beregana ekar zezatela agindu zuen; adeitasunez hartu zuen eta bere ondoan jesarrarazirik honela esan zion:

— Gizona, gizona... askori entzun diot txit jakintsua eta aditua zarela jainkozko gauzetan. Nahi nuke, hortaz, esango bazenit zein den hiru erlijioetatik egiazkoa, alegia: judutarra, mahomatarra ala kristaua.

Jakitun handia zenez, sobera ulertu zuen juduak Saladinok hitzen sarean harrapatu nahi zuela eskabideren bat egiteko aitzakia aurkitzeko. Beraz, deliberatu zuen ez zuela erlijio bat ere besteen gainetik hobetsi behar, Saladinok egin gogo zuena lortuko ez bazuen, behintzat. Hortaz, zorroztasunez erantzun zion, ondoren azalduko den bezala:

— Jauna, zaila da, izan ere, egin didazun galdera. Eta horren gainean pentsatzen dudana adierazi ahal izateko istorio hau zuri kontatu beharrean nago:

«Sarri entzunda daukat behinola bazela gizon handiki aberats bat, eta bere altxor bikaina osatzen zuten hamaika bitxi balio haundikoren artean bazuela eraztun txit baliotsu ezin ederrago bat. Eta eraztunaren estimuaren eta edertasunaren kariaz balioesteko eta bestalde bere oinordekoen eskuetan betikotu nahi zuelako, agindua eman zuen eraztunaren jabe izendatzen zuen semea aitaren oinordekotzat har zezatela beste anaia guztiek eta senide nagusi bezala begirunez aintzat hartua izan zedila.

Eraztuna jarauntsi zuen semeak eutsi zien ohitura eta hurrenkera haiei, aitak egin zuen bezalaxe, eta horrela eraztun hura eskurik esku luzaro ibili zen, belaunaldi bakoitzeko oinordekoaren ezaugarri.

Eta heldu zen azkenik hiru seme eder, bikain eta bertutetsu zituen aita baten eskuetara. Aitak berdin-berdin maite zituen hiru semeak, bereizketarik egin gabe. Gazteek, ostera, eraztunaren ekanduaren berri bazekitenez, aitari bakarka eta ondoen zekiten moduan erregutu egiten zioten limur zedin eta bere heriotzaren orduan eraztuna utzi ziezaien. Aita gizagaixoak, hirurak hein berean maite zituenez, zein aukeratu erabaki ezinik zegoela, hirurak ala hirurak gogobeteko zituen ebazpen bat hartu zuen, hala agindua baitzien denei banan-banan: artesau antzetsu batengana jo zuen isilean eta agindu zion beste eraztun bi egin zitzala lehenengoaren irudira eta hain antzekoak ezen berak ere ezin desberdinduko zituen. Eta heriotzaren ordua heldu zitzaizolarik, seme bakoitzari isilean eraztun bat eman zion; hauek, aita hil ondoren ohorea eta ondasuna atxiki nahirik, erakutsi egiten zuten nork bere eraztuna, aldarrikatzen zuten eta bidezko zirudien eskubidearen frogagarri. Eta eraztunak elkarren berdin-berdinak eta bereizi ezinak idoro zituztenean, ezin jakin ez ebatzi izan zuten zein zen aita haren egiazko oinordekoa, eta oraindik ere jakin eta ebatzi gabe dago auzi hori».

Eta orobat diotsut nik zuri, jauna, Aita Jainkoak hiru herriei emandako hiru legeei buruz —horixe baita zure galderaren muina—: denek aldarrikatzen dute Aitaren oinordetza eta bai haren egiazko lege eta aginduak; baina auzi honetan, eraztunaren auzian legez, arrazoia zeinek duen oraindino erabakitzeko dago.

* * * * *

Saladinok goretsi zuen juduaren zuhurtasuna, honek adimen zolia erakutsi baitzuen sultanak jarritako atakatik irteteko; hartara, bere nahia agertzea erabaki zuen eta bai juduaren zerbitzua eskatzea ere. Eta horrela egin zuen, aurrez aitorturik zer egingo zukeen baldin eta hark hain zuhurki erantzun izan ez balio. Juduak eman zion, oparotasunez eman ere, sultanak behar zuen diru guztia.

Geroenean, Saldinok harturiko zorra osotara kitatu zuen, judua opari baliotsuekin bete zuen eta harrezkero adiskide leiala izan zuen, beti bere ondoan edukiz, opariz eta ohorez maiz eta handikiro saritzen zuela.



Aholku onaren balada

Geoffrey Chaucer (Ingalaterra: 1340-1400)

Gizartetik itzuri ta izan egizale;
zure ogasunaz poztu, txiki bada ere;
diruk gorroto dakar, zoraldi igotzeak;
lagunek bekaitz dute, ta ondore onak
itsutzen (d)itu guztiak. Ez nahi izan gehiago
dagokiona zure zatiari baino.
Besteei ituntzeko argi zure buru landu,
ta ez da beldur, Egiak askatuko zaitu!

Oker denak zuzentzen ez hartu nekerik,
Zoriaren txirringan ez jarri usterik:
bake handi aurkitzen da zeregin txikian;
ta gudak ez du eiten ezten zorrotzean
jo baino. Ez lehiatu, lurrezko ontzi hori,
harresia azpiratzen. Zure burua hezi,
ta besteek dizu(t)e adituko gertu;
ta ez da beldur, Egiak askatuko zaitu!

Jaungoikoak bidaltzen dizuna hartu pozik;
jauspena iragarten du mundu honengatik
burrukatzeak. Hemen ez da etxerik, ez da
hemen lekaro baino; bidaztia, aurrera!...
Gorantz, abere hori, zure ukuilua utzi!
Ezautu zure herria, eskertu Jaunari;
gogoa aurre duzula, goiko bidea hartu;
ta ez da beldur, Egiak askatuko zaitu!

Beraz, abere gaixo, zure eztasuna utzi;
mundu huts hau ez gaur-gero ukuilutzat euki.
Errukia maite du Bere ahalmen hutsez
ezereztik irazan zaitunak; baina ez
jopu bat izateko. Zure alde, eta
bizi handiago bat ta zeruko poza
nahi duten denen alde, askerik eskatu;
ta ez da beldur, Egiak askatuko zaitu!

© Bingen Ametzaga, MOLDATUTA